


Euskal AEko industriako prezioek % 1,0 egin dute behera 2022ko abuztuan, aurreko hilaren aldean

2021eko abuztuarekin alderatuta, industriako prezioek % 21,3 egin dute gora

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioek % 1,0 egin dute behera 2022ko abuztuan, aurreko hilaren aldean. Abuztuko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena, % 21,3koa izan da.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2022ko abuztuan, sektore hauek izan dituztela hazkunderik handienak: *Erauzketa-industriak* (% 1,5), *Industria kimikoa* (% 1,0) eta *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 0,7). Prezioetako hil arteko jaitsierarik handienak, aldiz, honako sektore hauek izan dituzte: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 5,4 behera), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 1,1 behera) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 1,0ko jaitsiera).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberako sailkapenari jarraituz, 2022ko uztailaren aldean prezioek izan dituzten aldakuntza guztiak negatiboak izan dira, *Ekipo-ondasunetan* izan ezik, horietan % 0,2ko igoera izan baita. *Energiaren* prezioak % 3,0 jaitsi dira, *Bitarteko ondasunenak* % 0,6, eta *Kontsumo-ondasunenak* % 0,2 orotara, ezen *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 0,2 jaitsi dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* berean mantendu (% 0,0).

Urte arteko terminoetan, 2022ko abuztuan 2021eko abuztuaren aldean, prezio-hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 57,4ko igoera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 43,3ko igoera) eta *Industria kimikoa* (% 29,8ko igoera). Prezioetan igoera txikiena izan duten sektoreak hauek izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 1,3 gora) eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 2,8).

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da guztietan: *Energiaren* prezioak % 51,2 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 17,3 eta *Ekipo-ondasunenak* % 5,0. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 10,4ko hazkundera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 11,5 igo direlako, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 3,9.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2022

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	133,2	-1,0	21,3
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	111,7	1,5	7,2
Manufaktura-industria	129,1	-1,2	17,7
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	120,4	-0,1	12,7
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	101,5	-1,1	1,3
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	136,5	-0,1	24,0
Kokeak eta petrolioaren finitzen	174,0	-5,4	57,4
Industria kimikoa	154,9	1,0	29,8
Botiken fabrikazioa	123,7	0,7	11,5
Kaubu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	109,4	0,0	8,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,9	-1,0	18,7
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	119,8	-0,8	4,7
Material eta ekipoen fabrikazioa	112,8	0,0	5,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	109,5	-0,1	4,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	105,6	0,3	2,8
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	111,7	0,6	2,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	158,9	-0,1	43,3
Ura	121,9	-0,3	9,0
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	118,9	-0,2	10,4
Kontsumoondasun iraunkorrak	110,7	0,0	3,9
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	120,3	-0,2	11,5
Ekipo-ondasunak	112,7	0,2	5,0
Bitarteko ondasunak	130,9	-0,6	17,3
Energia	170,1	-3,0	51,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilearen (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Irailaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak ematen dizkie egindako ahaleginagatik lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, abuztuko indizea laginaren % **92,73ko** estaldurarekin kalkulatu da, eta horren informazioa abuztuan eta irailean jaso da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62